

230. zk.

Bigarren aroa

Ekainak 1
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Irungo Udal
Kontserbatorioko dantza
klasikoko eskola



Haurren leihoa

Bertso Jaialdiak



Mintzalaguna: euskaraz hitz egin konpainia onean

- 4 Erromesaldia Santiagora
- 6 Urruñan kabalkadak berreskuratu dituzte
- 7 Bidasoa Institutua
- 8 Kirolak. Jaizubia Klub Hipikoa
- 10 Haurren Leihoa. Bertso Jaialdiak
- 11 Gurasoentzak. Kasketak onak ote?
- 12 Gazteen Lanak. I. Bertso Paper Lehiaketako irabazleak
- 13 Gaztea. Herri Bazkaria
- 14 Gazte infor
- 15 Kultur agenda

www.irunero.com

Sar
zaitez
web orrian



APDEF)

Asociación para la Defensa
de Perjudicados de
Entidades Financieras

HONAKO EK KALTETUTAKOEI ZUZENDUA:
PARTIZIPAZIO PREFERENTEAK, MENDEKO ZORRA,
LUR-ZORU KLAUSULAK, BANKIAKO AKZIOAK ETA FAGOR
ZEIN EROSKIREN MENPEKO EKARPEN FINANTZARIOAK

Tel: 943 28 92 11 - 607 610 487

BILERA INFORMATIBOA IRUNEN

EGUNA: Ekainak 4,
asteazkena

ORDUA: 19:00etan

TOKIA: Alcázar hotelean
(Iparalde hiribidea, 11)

Sarrera librea lekua bete arte

5etatik 7etara,
hotelean bertan,
APDEFk
elkartek eta
partikularrak
pertsonalki
artatuko ditu
dohainik

SAREAK

“Azken belaunaldiko” sakelakoa oparitu diote amona Arantxari seme-alabek, lehendik zeukan segapotoa zaharkitua, omen. 80 urteko amona etxeko igogailuan sartu denean, bilobek igorritako lau uatsap heldu zaizkio. Pantaila kolpatu du hatzarekin behin eta berriz, nahiz eta laster gogoratu duen hatza pantailan zehar irrisartarazi behar dela, edota soilik *paratu*, ezer sakatu gabe. Oharkabean bidali dizkio laugarren solairuko bizilagunari hiruzpalau uatsap testu xeble eta ulertezinez “idatziak”. Laugarren solairuko bizilaguna Bingen da, etxepekoen presidentea, bere egongelan dagoena interneten kontsulta egiten sakelakoaren bidez: nola akatu balkoian bizi diren armiarmaak. Hain ugariak dira Bingenen balkoiko armiarmaak, sarea egin baitute aldameneko Irati eta Oskarren balkoiraino. Hala ere, Irati eta Oskar bikotea lasai demonio eseri da bere balkoian, garagardo bana eskuan dutela; bata tablet-eko joko kuttunean buru-belarri dabil, bestea sakelakotik facebooken “atsegin dut” mordoa sakatu eta sakatu. Belarrietan entzungailuak daramatzate biek, hirugarren solairuko Elenaren telebistaren topeko bolumena ez entzutearren. Bingenek lankide batekin txateatzeari ekin dio uatsapez; armiarmaak akatzeko metodo ordenagailuan irakurtzen dihardu, sakelakoan Arantxaren mezu kriptikoak harriduraz ikusi ondoren. Aldiz,



Yurre Ugarte

Arantxak, azkenean, nolabait, lortu du mezu bat idaztea: “bilera bizilagunak bizkor”. Baina, mezua Bingeni bidali ordez, alabari bidali dio. Bingen balkoira irten da: eskailera batera igota dago, erratza eskuan duela. Erratza trapu batez bilduta ageri da, eta trappua makilari lotuta zinta itsaskorraz. Armiarmaak akatzen dituen moduan uatsapak sartu eta sartu ari zaizkio Bingeni galtzetako patrikan daraman segapotoa. Hau ezinegona! Sakelakoa eskuratuzerakoan, oreka galdu eta, plast! ziplo erori da Bingen lurrera; armiarman arteko bultzadaren ondorioz akaso... Irati eta Oscar armiarma sare baten barruan bilduta daude jada, burbuila ikusezina bailitzan. Elenaren telebista-pantailan armiarma gazte bat dabil atzera eta aurrera, Elenak programako logo ibiltaria dela uste duen arren. Arantxaren hanketan gora badoa armiarma nekazekin bat, Arantxak berak nabaritu ere ez duena. Etxeko fatxadan, telefonia enpresetako kableak hormara iltzatuak daude, besarkada hilgarrian, eta, teiltuan, tente-tente diraute mota guztietako antenek, balizko babesleak.

Irun atzo Irun gaur

Gaur egungo eraikina

Colon hotela atzo



IUA: 49047



Colón Hotela 1959tik 1960ra bitartean Pikoketa kalearen eta Kolon ibilbidearen arteko kantoian eraiki zuten. Urte gutxi batzuk baizik ez zen irekia egon, arazo ekonomikoak tarteko. Itxitakoan eraitsi zuten Garai hartan gazte zirenek ederki asko dituzte gogoan bertan antolatzen ziren dantzaldiak, eta Jose Maria Zabalza zinegile irundarrak pelikula bat filmatu zuela, hainbat hiritarrek parte hartuta.

1979an Udalak Pikoketa deitzea erabaki

zuen, Gerra Zibilean hil ziren pertsonei omenaldi bat egiteko eta Beorlegui jeneralararen izena kentzeko, gerraren basakeriak jasan zituzten askorentzat batera oroitza-pen ona ez zelako.

1896an Once de Noviembre deitzea erabaki zen, 1874ko egun hartan liberalek lortu zutelako tropa karlistek Iruni ezarria zioten setioa altxatzea.

Pikoketa kaleari buruzko iturria: *Irungo kaleen izenak*. José Monje

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Kirolak: Naiara Hernandez Lekuona

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitatea: Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea: Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Anaka kalea, 11
IRUN
943-61-54-57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943-64-54-57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Mintzalaguna egitasmoa: euskaraz egin konpainia onean



Euskara ikasteko ahalegina egin ondoren askok ez dute norekin hitz egin. Mintzalaguna egitasmoak aukera ezin hobea eskaintzen du euskara ihar ez dadin. Taldean kafe bat hartzen, paseo bat ematen den bitartean, edo mahai baten inguruan; berdin dio nola, axola duena mintzatzea da. Ikasurte honetan partaide kopuruak gora egin du: 13 talde osatu dira eta, bakoitza bere mintzalagunaren gidaritzapean, denera 76 mintzakide aritzen dira hitz eta pitz.

Mintzalaguna egitasmoaren kudeaketa zuzena Irungo Udal Euskaltegiak egiten du eta hiriko euskaltegi guztiek kolaboratzen dute. "Euskaraz mintzatzeko aukera ematea eta euskaldunak topatzea helburu nagusiak dira", azaldu du Jaione Campo Euskaltegiko zuzendariak. Horretarako taldeak osatzen dira, partaideen ordutegi aukerak ardatz hartuta, eta mintzalagun baten gidaritzapean berriketan dihardute. Talde bakoitzak erabakitzen du non bildu eta zenbat denboraz. Gehienek astean behin ordubeteko saioak egin ohi dituzte. Jaione Camporen esanetan, "partaide askok diote taldetik kanpo ere zabaltzen dutela euskaraz bizitzeko aukera". Hori horrela, lotsak astindu eta komunikazio tresna gisa baliatzera deliberatzen dira hainbat lagun.

Euskara ikasle ohientzat, alfabetatu gabekoentzat edo ez mintzatzearen poderioz galtzeko zorian daudenentzat ere aukera guztiz aproposa da. "Mintzakideen (ikasleen) perfila oso zabala da: langileak, euskara ikasleak... Adin tarteari dagokionez, badira 20 urteko gazteak eta 80 baino gehiago dituztenak ere! Badira urteak biltzen daramatzaten talde batzuk".

Jarduera programa

Asteroko hitzorduaren osagarri, Udal Euskaltegiak jarduera programa antolatzen du, parte-hartzea doakoa izaki. Hilabete behin ekin tzaren bat eskaintzea da jomuga. Aurten ipuin kontalari saio bat prestatu da, lau tailer-makilajea, areto dantzak, eta ukenduak eta kremak nola egin- eta mendizale talde bat eratu da. Ikasurtea borobiltzeko, ekainean Mintzalaguna

egitasmoan parte hartu duten guztiei zuzendutako bazkari bat egingo da.

Emaitzak

"Emaitzak oso onak izan dira. Oso gustura dabilta", dio zuzendariak. Halaxe islatu dute kideek berriki luzatu zaien inkesta batean. Kopuruei dagokienez, iaz baino 17 mintzakide eta 5 mintzalagun gehiago izan dira.



- 1.- Makilak nola egiten diren ikasteko saio bat.
- 2.- Dantza ikastaroa.
- 3.- Makilaje tailerra.
- 4.- Jaione Campo Udal Euskaltegiko zuzendaria eta Miren Olaskoaga mintzalaguna.

"Oso gustura aritzen gara berriketan"

Miren Olaskoaga goi urrats bateko ikaslea da Udal Euskaltegian eta, aldi berean, ikasurte honetan estreinakoz, mintzalagun dihardu. "Larunbatero hitzordua dugu Gaztelumendi tabernan ordu eta erdi. Oso gustura aritzen gara berriketan". Mintzakideek euren egunerokoan euskaraz hitz egiterik ez, eta honi esker taldetik kanpo ere harremanak dituzte. "Bai, lagunak ere egin gara!". "Saioetarako ez dugu ezer prestatu beharrik; nahi duguna kontatzen dugu, eta ez pentsa hizpiderik falta zaigunik", dio Mirenek pozarren. "Programa hau oso ideia ona da. Jendea animatu nahi dut heldu den urtean parte har dezan, merezi du eta".

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Urruñarrek Erdi Aroan jatorria duten kabalkadak berreskuratu dituzte

Ekainaren 7an arratseko 8:30ean eta 15ean 17:00etan, gure bizilagun urruñarrek 2012ko ekainetik prestatzen ari diren kabalkada zintzarrotsa jokatu dute herriko pilota-plazan. Berrehun bat lagun aritu dira lanean espektakulu hau prestatzen, jantziak egiten, zintzarrotsa idazten, finantzazioa bilatzen, dantzak eta kantuak sortzen eta ikasten...



Itsasun 2012an jokatu zen Tobera.



- BAINA ZER DA KABALKADA-ZINTZARROTSA?

Erdi Arotik datorkigun ohitura da, Europa osoan zabaldurik izan dena. Garai zaharretan senar-emazteen gatazkak, alargunen berrezkontzak eta gisa horretako gaiak ziren plazan, horrelako ekitaldien bidez salatzen zituztenak. Euskal Herrian ohitura hau biziki sustriturik zegoen. European gehien erabili zen izena *Charivari* da. Euskaldunok tokiaren arabera izenez bataiatu genuen. Xaribari hitza ohikoa izan dugu zazpi euskal herrietan, baina horretaz gain izen asko erabili ditugu: Tobera-munstra, astolasterra, galarrotsa, zintzarrotsa, karrusa, txintzarroska... Gizarte kristauaren autozentsura modukoa zen; hau da, moral kristauaren aurkako gertakizunak edota ekintzak salatzeak eta herritarren aurrean zigortzeko balio zuten besta kutsuko sasi-aztiak. Barregarriak zirenez gero herri xeheak biziki maite zituen, eta gehienetan gazteak izaten ziren horrelakoak antolatzen zituztenak. Izena orokorrean horrelakoetan egiten zuten burrunbarekin lotua dago, zintzarriekin -zintzarrotsa-, tubela izeneko tron-

petatxo antzekoekin -tobera-, gare edo gale izeneko ezkielak -galarrotsa- eta abar.

Erdi Arotik zetorren ohitura hau Hegoaldean XIX. mende hasierarako galdua zen eta Iparraldean Bigarren Mundu Gerrara arte iraun zuen. Orduko gizarteak aldatua zen eta ez zuen begi onez ikusten horrelako salaketa publikoak egitea; hori dela eta, agintari zibilek debekatu egin zituzten. Azken tobera klasikoa Irisarrin 1937. urtean egin zutena jotzen bada ere, geroxeago ere zenbait tokitan gaueko toberak egin zituzten. Itsasun, adibidez, Bigarren Mundu Gerraren garaian egin zuten, eta jakin dugunez aski bortitza, gainera. 1950. urtetik aitzina tobera berrien tenorea etorri zen, Luhuson, Makean... Gaia ez zen garai bateko salaketa moral hura, alegiazko gaien inguruko epaiketa baizik. Egitura guziak bere hartan jarraitu zuen: dantzak, kantar, bertsoak, kabalkadak, pertsonaiak... 1970. urtetik aitzina boterearen aurkako toberak antolatu zituzten. Adibidez, 1974. urtean Iholdin zegoen aintzira proiektu baten kontrako. Joera berri honek tobera arrapiztu eta indartu



Irisarrin 2012an antolatu zena. Ezkerrean, Urruñakoaren afitxa.

zuen.

Lapurdikoa barnealdean eta Baxenabarren toberak izugarri indartu ziren, eta herri ainitzek antolatu zituzten, Itsasun, Lekornen, Luhuson, Heletan... Itsasu izan da tobera-munstra gehien egin duena. 2012an Irisarrin sekulako kabalkada eskaini zuen, eta Itsasun ere bai. Toberaren berpizte hau Iparraldeko barnealdean gertatu da, kostaldetik urrun. Kostaldean -

Urruña barne-, badirudi azken toberak XIX. mendearen erdi aldean jokatu zituztela.

- ZERTARAKO KABALKADA-ZINTZARROTSA URRUÑAN?

Urruña azken hamarkadan izugarri handitu da eta gaurko bizimodua ez da garai batekoa. Jendeak ez du askotan bizilaguna ezagutzen. Horretaz gain, esan behar da euskarak atzerakada handia izan duela,

alde batetik eskola frantsesak euskara guztiz baztertu delako orain dela oso gutxi arte, eta bestalde, euskara ezagutzen ez duen kanpoko jende andana etorri delako.

Hori dela eta, euskara ardatz duen espektakulu hau antolatzearabaki genuen, bizilagunen arteko ezagutza eta adiskidetasuna indartzeko eta euskararen presentzia zabalteko. Jadanik lortzen ari gara. Gure asmoa litzateke Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoako mugaldeko herrietan ohitura hau piztea, eta ahal izanez gero, urtero herri batek horrelako tobera bat antolatzea. Gonbidaturik zarete eskualdeko euskaldun guztiak. Aupa, bada, ea hurrengoak irundarrak zareten.

Joseba Aurkenerena

Mugaz gaindiko aholkularitza

MyL mugan
aholkulariak

Ficoba
Iparralde
hiribidea, 43.
IRUN

t 943 537 720
f 943 116 014
m 649 014 096

www.mylmugan.com



Bidasoa Institutua Estatuko zentrorik berritzaileenetariko bat da

Bidasoa Institutua oso sustraitua dago Irunen eta "La Sindi" izenez ezaguna zenetik gaurdaino zerbait ez da aldatu: profesionalak –hitzaren esanahi zabalean– formatzeko helburu argia. Halaber, bere horretan mantendu dira gure ardurak: berrikuntzarekikoa eta sektore produktiboaren zein ikasleen eskaerei egokitzearen ingurukoa. Azken hauek gero eta kalitate handiagoko formakuntzaren aldeko apustua egiten dute.

ESKAITZA

- **Erdi eta Goi mailako Heziketa-zikloak** industriaren sektoreko lanbide-arloan: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (eus-kara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez).



- **Goi Mailarako sarbide-froga** prestakuntza kurtsoa

Zikloko Ikasketak modalitate desberdinetan egin daitezke:

- **Erregimen arrunta** (goizez)
- **Eskaintza Partziala** (arratsaldez)
- **Lanbide Heziketa Duala** Ikas-ekinezko heziketan oinarritua den modalitatea da. Alemaniako modeloaren antzera, ikastetxeetako prestakuntza lantegietako prestakuntzarekin konbinatzen ditu. Hartara, ikasleak ezagutza teoriko eta praktikoa bereganatzen ditu ikastetxearen eta lantegiaren artean, lan-kontratu batekin eta sektoreko lan hitzarmenaren arabera soldata kobratuta.
- **Eleanitzasuna.** Frantsesez edo ingelesez (taldea osatuz gero).

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

- **Lehen Aukera Programa** Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen programa berri hau Prestakuntza Ziklo bat bukatu duten ikasleentzat prestatua dago, enpresa batean ordaindutako praktikak eginez ikasleek lan-esperientzia har dezaten.



- **Lan-Poltsa.**
- **Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua**
- **Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpresetan**
- **Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat**
- **Enpresendako prestakuntza-beharren diagnostikoak**



PROIEKTUAK ENPRESEKIN LANKIDETZAN

Berrikuntzaz hitz egiten dugunean, ezin ahaztu iaz Bidasoa Institutua Estatuko zentrorik berritzaileenetarikotzat nabarmendua izan zela.



Prestakuntzarik onena eskaintzeko konpromisoari esker, urtero proiektuak aurkezten dira, enprekin eta zentro teknologikoekin lankidetzan. Ondorio zuzena da gure ikasleek prestakuntza hobea lortzen dutela, baita lan munduratzeko aukera gehiago ere. Ikasturte honetan proiektu hauetan ari dira lanean, besteak beste:

- **Etxebizitza eraginkorrak.** "0" kontsumoko etxe baten eraikuntza. Horretan, ikasleek teknologia eta sistema ezberdinak aplikatzen dituzte (domotika, energia fotoboltaikoa, eguzkitiko termikoa, aerotermia...) ERAIKUNTZA ZERO deritzona egin aldera.
- **DRONAK.** Dronekin edo UAVekin (Tripulaziorik gabeko aire-ibilgailuekin) lan metodologiaren ikerketa eta beraren aplikazioa alor ezberdinetan: bideoa, kartografia, pertsonen bilaketa, termografia, eraikuntza eta ikuskapenak, nekazaritza, ingurumena...
- **Karbono zuntza.** Diseinua, simulazioa, prozesu ezberdinen arabera fabrikazioa, karbono zuntzezko piezen mekanizazioa eta balioztatzea.
- **3D prototipatua.** Ikerketa eta formakuntza 3D prototipatuan edo inprimaketan, polimeroz eta material berriez piezak fabrikatzeko.



1

- 1.- Sarria eta Melide artean dagoen leku magikoa.
 2.- 820 km ibili ondoren, ametsa gauzatu: Santiago.
 3 eta 5.- Galiziako sarrera.
 4.- Astorga, Leongo herri zoragarri polita.



2



3



4



5

2. ATALA

Erromesaldia Santiagora

Santiagorako erromesaldiaren bigarren atalean, egileak Leongo Mansilla de las Mulasetik Fisterrarainoko kronika ekarri digu. Eguraldi pattala gora-behera, paisaiatz eta herritarrez gozatu zuen Thor eta Ruth zakurren konpainian. Donibane Garazitik abiatuta, 29 egun eman zituen 920 kmko abentura korritzeko.

Bigarren atal honen ezaugarri nagusiak mendiak eta edertasun zoragarria dira.

Palentzian zehar iparraldera begiratu zergo, Kantauriar mendikatea ikusten genuen uneoro. Elurrak zurututako mendiak biziki nabarmenak ziren hegoaldeko lautaden aldean.

Leonera hurbiltzen ari ginela, euria, hotza eta elurra indarrez itzuli ziren. Leongo katedralera iristean bota zuen elurra txit ederra izan zen, baina kezagarria. Lurreko gezi horiak ikusiko al genituen 10 cmko elur geruzaz estalita? Zorionez, biharamunean eguzkia aterata zen.

Astorga arrunt gustuko izan nuen; herri polita da oso. Ponferrada izan zen Santiagora heldu aurretik igaro genuen azken hiria. Leongo mendi aldeko herriak baserri kutsukoak dira, eta zoragarriak. Fierroko Gurutzerako igoera ere, 20 cmko elurrearekin, hunkigarria izan zen. Ondoren Cebreirora bidean jarraitu genuen: igoera gogorra eta paisaia liluragarriak.

Galizian geunden, helmuga hurbil ikusten nuen eta pena sentitu nuen, amaitu nahi ez nuelako; horrenbeste gozaten ari nintzen ezen ez bainuen iritsi nahi...

Sarria, Melide, Arzua... herri eta herri-

tar hauen oroitzapen bikainak ditut!

Etapia haiek gogorak izan ziren eten-gabe euria ari zuelako: sei egunetan ez zuen atertu. Santiagon euria ari zuela sartu ginen -jakina!- eta galiziar emakume batek esan zuen bezala: ez litzateke Galizia izango euria egingo ez balu.

Santiagora iristek sekulako malko eta emozio pila sortarazi zizkidan; izan ere, hilabete oinez eman ondoren oso berezia den zerbait lortu duzula ikusten duzu.

Jendea harritu egiten zen motxilaren pisuarengatik, 20 kilo baino gehiagokoa zelako.

Bertan, bidelagun izandako jende asko agurtu nituen, ia denek amaitutzat eman zutelako euren bidaia. Baina nik gehiago nahi nuen, behar nuen... Itsasoaren bila abiatu nintzen, bada, munduaren bukaeraren bila.

Santiagotik Fisterraraino edo Muxiaraino 90 bat km daude. Beste hiru egun behar izan nituen eta euria zein demoniozko haizea lagun izan genituen. Ordurako, ordea, guztiz ohituta geunden.

Ibilbidea txundigarria izan zen eta, bat-batean, lanbro artean, itsasoa ikusi nuen. Energia goraka sentitu nuen Cee herrira jaistean eta hondartzara joatean. Bainatzen saiatu nintzen, baina, demontre, hura hotza!!! Nire zakurrak gustura sartu ziren uretan.

Hondartza xarmantak eta Fisterrara iristea ere zoragarri bezain hunkigarria. Itsasora begira jarri nintzen: ez zegoen lur gehiago, munduaren bukaera, antzinako biztanleek deitzen zioten bezala.

Bidaia borobiltzeko dorrearen gainearaino igo nintzen, baita bertan nire kamiseta bat utzi ere. Tradizioa da janzkiren bat erretzea.

Itzulera zakurrengatik korapilatsua izan zen. Taxiz Santiagoraino eta handik mezularitza zerbitzuaren bidez Iruñeraino.

Zinez, arima asebetetzen duen bidea izan zen. Bidea egiteko asmoa duen orori, aupa!!

Norbaitek informazioa nahi izatera, hona nire helbidea:

soniabaneza19@gmail.com

Sonia Bañeza Fernandez

Kalitatezko margo-lanak
eta dekorazioa

- DENETARIKO MARGO-LANAK
- HORMA LAUTZEA
- LAKATZEAK ETA BERNIZATZEAK
- BAINUONTZIEN ETA AZULEJUEEN ESMALTATZEAK
- AROTZERIA
- ETXEKO KONPONKETA TXIKIAK:
 - Pertsianak
 - Ateetako heldulekuak
 - Entxufeak...
- . HEZETASUN ZIKINGUNEEN GARBIKETA

Zura lantzen dugu, opari oso pertsonalizatuak egiteko: izenak... edo bururatzen zaizuna

619 88 97 23
943 63 11 58..
Aranibar. Katea. IRUN

Dekorazioa



Fatxadak



Fatxadak



Bainuontziak herritzea



Zaharherritzeak



Opari pertsonalizatuak



Dantza klasikoa: sentsibiltatea eta talentua elkartzen dituen diziplina



Urtero, 6 eta 17 urte bitarteko ehunka dantzari gazte jasotzen ditu Irungo Udal Kontserbatorioak. Batzuek etorkizunean dantzari handienekin batera aritzea dute amets. Beste batzuek, ordea, beren pasioarekin jarraitzea nahikoa dute. Dantza klasikoak bizitza ikusteko ikuspegi berezia eskaintzen du eta, alde fisikoaz gain, alde emozional eta sentibera oso garrantzitsua ere badu.

Irungo Udal Kontserbatorioko dantza klasiko gelara hurbildu orduko, bertan Sonia del Barrio dantza klasiko irakasleak ongiatorria ematen digu. Harekin batera hamar bat neska-mutil daude. Eskarmentu handiko irakaslea da Sonia; izan ere, 22 urte darama diziplina hau irakasten. Bere eskuetatik igaro diren ikasleentzako galdu duen arren, oso gertutik jarraitzen ditu bere ikasle ohien pausoak. "Zentru profesionaletan euren ikasketak bukatzen ari dira batzuk. Baten bat New Yorken dago momentu honetan, eta bere

akademia ireki duen ikasle ohia ere badu".

Dantzaren mundua oztopoz beterik dago eta gailurrera iristeko lana oso gogor egin behar dute dantzariak. Hala ere, Soniarentzat garrantzitsua da diziplina honek eskaintzen duen gozatzea. "Dantza klasiko ikasten duten bitartean, ondo pasatzea, musikaz disfrutatzea eta bizitzarako ezinbestekoak diren balioak ikasleei helaraztea da nire erronka nagusia".

Badirudi Soniak bere helburua lortu duela,



zereen eta Aritz Aizpiolea, Irati Noain eta Idoia Armezaga ikasleak poz-pezik baitaude haren ondoan lortutakoarekin. "Oso ondo zaintzen gaitu eta gure lana asko baloratzen du" dio Iratik.

Azpiegitura falta

Profesionalki dantzaren munduan lan egin nahi duten ikasle gipuzkoarrek oztopoz beteriko bidea dute aurretik. Soniak argitzen digunez, ez dago gure lurraldean dantzari profesionalak hezteko zentrorik. "Bertako ikasle gazteak Gasteizera edo Burgosera joan behar dute nahi eta nahi ez. Gainera, oso erabaki zaila da gurasoentzat. 15 urteko seme-alabak urrutira bidaltzea ez da erraza". Idoiaren kasuan hori da, hain zuzen ere, goi-mailako ikasketekin ez jarraitzeko arrazoi nagusia. "Burgosera Kontserbatorioan sartzeko aukeratze-prozesua gainditu nuen, baina hemendik alde egiteak atzera jo ninduen".

Bizitza ikusteko modu berezia

Txikia zenean Vienako Urteberriko kontzertuan aritzen ziren dantzarien jauziak ikusi ondoren erabaki zuten Aritzek mundu honetan zortea probatzea. Nahiz eta arrerapausoak eman, dantzaren eta muti-

1. Kontserbatorioko dantza klasiko ikasle talde bat.

2 eta 3. Dantza ikasle gazteak kontserbatorioko klase batean.

len estereotipoak indartsu jarraitzen du egun. "Dantzarena zerbait desberdina da eta batzuek ez dute ondo ikusten. Hala ere, hiri handietan herri txikietan baino onartuagoa dago".

Dantza klasiko praktikatzeko gauza ugari eman dizkie hiru gazte hauei. "Kritikak hobeto onartzeko, sentsibiltatea garatzeko eta ikasketetan hobetzeko balio izan digu". "Bizitza ikusteko eta ulertzeko modu berezia eskaintzen dizu dantzak", gaineratzen du Aritzek.

Soniarentzat, berriz, oso polita eta aberasgarria da 6 urterekin dantzaren munduan hasten diren neska eta mutilen garapena ikusten joatea. "Niretzat hori da irakasle lanak duen onena".

Irungo Udal Kontserbatorioko dantzarien lana ikusteko aukera ere izango dute irundarrek ekainaren 7 eta 8an: Amaia Kultur Etxean hainbat koreografia eta "Ederra eta Piztia"ren ipuina antzetzeko dituzte.



- Indoor zikloa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tonifikazioa
- Tai chi
- Pilates
- Defentsa pertsonala
- Step
- Kick boxing
- Zumba
- Brasillar Jiu Jitsu
- Muskulazioa

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA

Jaizubia Klub Hipikoa, naturaz eta zaldiez gozatzeko primerako aukera



1984an ireki zituen atea Irungo klub hipikoa, eta harrez geroztik zaldizko gizon-emakume ugari igaro dira bertako instalazioetatik. Gaur egun, 325 bazkide ditu klubak eta asko dira zaldien munduak erakartzen dituen haur, gazte eta helduak. Kanpoko ekintzak, natura eta zaldiak gogoko dituztenek primerako jarduera dute hemen.

Tradizio luzea duen Jaizubia zalditegiak zaldiz ibiltzera hurbiltzen diren ikasle eta bazkide ugari jasotzen ditu egunero. Jose Luis Gamarra Jaizubia Klub Hipikoko presidentea azaltzen digunez, euren eskaintza oso zabala da. "Haur eta gazteentzat eskola kirola programa dugu; UDA programaren parte ere bagara eta, hori gutxi biltz, udalekuak eta txangoak ere antolatzen ditugu". Horretaz gain, Bidasoa eskualdeko auzoetako jaietara hurbildu ohi dira, eta Igan de Sasoi ekimenean ere parte hartu ohi dute, zaldien mundua hiritar gazteengana hurbiltzeko asmoz.

Familia osoak praktika dezakeen kirola da hau eta, askotan, etxeko gaztetxoak dira gurasoak diziplina honetara erakartzen dituztenak. "Klubeko familia batean, seme-alabak izan ziren hipikaren kontuare-

kin hasi zirenak, eta gurasoak, haiek ikustean, atzetik etorri dira. Orain lauak ibili ohi dira".

Zaldia menperatzeko gomendioak
Itziar Juarros zaldiketa irakaslearen esanetan, "lasai egotea ezinbestekoa da zaldia bideratu ahal izateko, hura gelditzeko, baita aurrera egin ahal izateko ere". Horretaz gain, "gure gorputzaren jarrera zuzena izatea oso garrantzitsua da". Gomendio hauek guztiak jarraitzea onuragarria da, zaldia ere eroso ibil dadin. "Urduri baldin bagaude, gure giharrak tenkatu eta zaldiari, nahiagabe, gogor egiten diogu tira". Hori bai, Jaizubia Klub Hipikoko presidentea dioen bezala, "inoiz ez zaio zaldiari errespetu puntu hori galdu behar eta etengabe arreta mantendu behar da erorialdiak ekiditeko".

Jaizubia Klub Hipikoa klaseak egunero, goiz eta arratsalde, eskain-

tzen ditu. Eskola kirolaren programaren barruan, esaterako, bi maila daude. "Hasiberriei zaldia nola garbitu, orraztu, zaldia nola igo eta jaitsi eta pauso, trosta eta galope teknikak erakusten dizkiegu. Aurreratuei, berriz, pausua, trosta, galopea eta jauzi egiten ere erakusten diegu" dio Itziar Juarrosek. Adin-tarte oso desberdinetako ikasleak ditu Itziarrek. Hala ere, oso pozik dago aniztasun honekin. "Poney-ekin jolastu eta ondo pasa besterik nahi ez duten umeekin jolastetik, zaldian ondo ibiltzen ikasi nahi duten helduei irakastera pasa naiteke. Horrela, aspertzea ezinezkoa da".

Naturaz gozatzeko primerako kirola

Gutxi dira hipika eskola-kirola eskaintzaren barnean sartzen dela dakitenak. Ikastetxe eta erakundeen aldetik, kirol honen promozio handiagoa egitea eskas sumatzen dute hipikako arduradunek. Itziarrek dioenez, "naturan aberekin egotea atsegin dutenek primerako ekintza dute hemen. Gainera, irakaskuntza prozesu indibidualizatua eskaintzen diegu gure ikasleei; bakoitza bere erritmora joan dadin".

Zaldiketaren munduarekin irundarrek izango duten hurrengo hitzordua Irungo jaietan izango da, San Martzial Txapelketaren 25. urteurrenean.



1. Jaizubia Hipikako kirolari gazteak.
2. Amazona bat, zaldiarekin jauzi bat egiten.
3 eta 4. Hipikako lehiaketak.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Bertso Jaialdiak

Maiatzaren 20an eta 27an ospatu ziren Amaia Kultur Zentroan 2013-2014 ikasturteko Bertso Jaialdien bi saioak. El Pilar eta Elatzeta ikaste-txeetako ikasleak aritu ziren bertsoan lehenengo txandan, egitasmoaren barruan egindako lana jendaurrean aurkezteko. Taldeka aurretik landutako gai baten inguruko bertsoak eman zituzten, guztiek umorea ardatz zutelara. Halaxe, El Pilarreko gela bateko lagunek VIP diskoteka baten ingurukoak kantatu zituzten, eta Elatzeko beste bateko Aquapark bateko gorabeherak izan zituen kantugai. Antzokia bertsoz eta txaloz bete zen.

Hurrengo astean, maiatzaren 27an bigarren bertso jaialdia burutu zen, Dunboa, Belaskoenea eta Eguzkitzako ikasleekin. Guztira 350 ikasle inguru aritu dira bertsoan.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, Irungo Udaleko Euskara Arloa eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartea aritu dira elkarlanean.

EL PILAR

VIP DISKOTEKA

(Bezeroak)

Diskoteka VIP-ean parranda daukat nik hemen gauden guztiak ez gara VIP nire makilatzaile non zauden ez dakit begitatik rimelak niri alde egin dit

(Atezainak)

Jende normala ez dugu batere gustoko ta famatuak ere ez dira sartuko dirua behar duzue honera etortzeko sobornatzen ez nauna ez da pasatuko

DJ-ak

Jendeak dantzatzeko du gurekin batera ez baduzu dantzatzeko kanpora atera musika aparatua bikaina gainera orduko guk botatzen dugu zakarrera

ELATZETA

ABERATSEN AQUAPARK-A

Aberatsek ez dute Itxaroten filan Kabiarran sartzen dute Patata-tortilan Ferrariek daukate Masajean sillan Txekeekin ordaintzen dute leihatilan

(Soroseak)

Hamaiketan irteten Gara gu etxetik Gu distraitzen gara Telebistagatik Norbait itotzen ari bada piszinatik gu ez gara bustitzen, bezeroengatik.

(Tabernariak)

Guk hementxe daukagu Udako kanpaina Kartera ez dugu guk Izaten liraina Gure taberna denez Ona ta bikaina Hemen soilik zerbitzen diegu txanpaina



Elatzetako eta El Pilarreko ikasleak maiatzaren 20ko bertso-saioan.

Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunbarro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Paseatzeko silitak
- Sehaskak

- Haur kotxeak
GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo. 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria zaintzen dugu

Kasketak edo haserrealdiak onak ote?

Aurrekoan aipatu bezala, haserretzea ingurunera egokitzen laguntzen gaituen emozioa da eta, ongi bideratuz gero, defendatzen laguntzen gaituena. Bizitza osoan dugun emozioa da eta haren erregulazioa bizi osorako ikasketa da.

Haserrealdi garaia bereziki garrantzitsua da pertsonaren garapen afektibo emozionalean. Are gehiago, oso garrantzitsua da haurrek 18 hilabete dituztenean bizi duten oposaketa garaian, bai eta 13 urte aldera gazteek bizi duten nerabezaro garaian ere. Oraingoan, lehendabizikoa aztertzen saiatuko gara:

18 hilabeteko haurren OPOSAKETA garaia:

Nahiz eta gizakiak garapen-ahalmen handiak izan, haur jaioberriek helduekiko duten menpekotasuna eta beharra handia da, bakarrik ezin baitituzte ase euren behar fisiko eta afektibo-emozionalak. Ondorioz, belaunaldiz belaunaldi, haurrek heldu bati atxikitze, lotzeko edota elkartzeko joera sortu dute. Helduok ere geure haur jaioberriei lotzen gaituen harreman afektibo bat izateko joera bat aurreprogramatuta dugu. Joera honek atxikimendua izena du. Gauzak horrela, 18 hilabete inguru dituztenean, umea garapen arruntaren parte den NIA eraikitzen hasten da. Garai horretan bera pertsona badela ohartzen da. Beste modu batean esanda, NI eta NIREA hitzak erabiltzen hasten da. Ondorioz, gurasook BAI esaten dugunean, haiek EZ esango dute, eta alderantziz.

EZETZ esatea:

EZ eta EZ DUT NAHI hitzak bere burua baieztatzeko erabiltzen ditu. Bere ezeztarekin bere boterea adierazi nahi du, bera badela, bere IDENTITATEAn baieztatzen ari da. Hala ere, boterea duena heldua da, eta honetaz ohartzeak frustrazioa sortzen dio haurrari. Horren ondorioz, haserrealdi gogorak izaten ditu.

Bi desio nahasi azalduko dira. Hori dela eta, anibalentzia sortuko da.

1. Atxikimendu figurarekin kontaktua mantendu nahi du.
2. Autonomoa izan nahi du, eta bere nahiak eta desioak bete. Haurrak ez du arauetz edo ardurez ezer ulertzen eta ez du, ez pentsatzeko joerarik, ezta arauak errespetatzeko joerarik ere.

Haserrealdi garaia garrantzia:

Askok "kasketa garaia" deritzote. Nire ustez, hitz hori ez da batere egokia, garai horri zentzu negatiboa ezartzen diolako, eta, nahiz eta gogorra izan, haurren garapen positiborako oso garrantzitsua da.

Autonomo eta burujabe bilakatzeko beharra du haurrak. Horretaz gain, bere burua baieztatzeko, defendatzeko eta bere indarra azaltzeko joera du, eta hori ateratzea funtzeskoa da. Gainera, agresibitatea bizi pultsioa da eta ongi bideratzen ikasi behar du.

Honek ez du esan nahi dena onartu behar diogunik. Muga eta erreferentzia argiak behar dira garai horretan. Hori bai, haurraren sentimendua eta prozesua kontuan hartuta.

Hona hemen zenbait erreferentzia haurra garai horretan modu positiboan gartzatzen laguntzeko:

- Haurraren haserre eta garaia onartu behar dira. Normala eta positiboa da haurrak adin horretan zerbait nahi duenean haserretzea eta ondorioz bere agresibitatea edo indarra ateratzea. Nahiz eta hau erregulatzen ikasi behar duen, ez dugu ahaztu behar bere garapenaren alde positiboa dela eta denbora behar duen prozesu bat dela.
- Sentimendua onartuta, askotan ezetz esan beharko diogu haurrari. Adin horretan ez dute araurik edo legerik ulertzen, baina garrantzitsua da arau gutxi eta argiak ipintzea. Gure presentzia eta goxotasu-

Haurraren haserre onartu behar da, haren garapenaren alde positiboa baita.



netik errutina erraz, argi eta errepikatuak ipintzea.

• Haurrari baietza eskain badiezaiokegu (gure errutina eta balioetan sartzen bada) argi eduki BAIETZ esan dezakegu. Maiz badugu iritzi bat, EZETZ esatea ongi heztea dela, baina baietz asko esan ditzakegu; galtzerdi hauek beste horien orde, parke honetara ala bestera joatea, lehenik pixka bat jolastu eta gero etxeko lanak egitea...

• EZETZ esan behar dugunean, lasaitasun handiz adieraz dezakegu, eta ERREFERENTZIAK ematen saiatu. Maiz haurrak haserretzen direnean gu haien gaintik ipintzeko joera izaten dugu. Erraza ez bada ere, gure lekuan gertatzearen kontzientzia hartzea oso baliagarria izan daiteke.

• Geldiarazteko modu hoberena gorpuztarekin edo gure jarrerarekin da. Irmo esan "ez minik eman", "lagunak jolasteko eta ondo pasatzeko daude", adibidez.

• Ez bada erraz gelditzen, goxo hartu eta "lasaitu arte nire ondoan geratuko zara" eta "lasaitzean lagunekin jolastera joan zaitezke" esan diezaiokegu. Ahal bada gu haserretu gabe, lasaitasunez eta prozesu bat izango dela onartuz. Sentimendua onartu, "haserre zaude, badakit, baina ezin dizut minik ematen utzi." Lasaitzean, goxatu eta lasaitasunez jaso. Zerbait egoki egin ez badu, konpontzen lagundu.

• Denbora eskaini lasai dagoenean; jolastu, gozatu. Denbora hartu berarekin lurrean eseri eta jolasteko: pilotarekin, eraikuntzak edota palitrokeak bota, borroketan irabazten utzi... agresibitatea atera dezan jolasaren bidez. Hau guraso eta hezitzaileentzat erraza ez bada ere, espero dut etapa ebolutiboa ulertzeko erreferentzia argiak eskaini izana. Eta ez ahaztu! Garai horrek duen edertasunaz ohartu eta gozatu. LASTER ARTE!!

MAPI URRESTI ORTIZ
kuttun.kuttun@gmail.com

- METODOA: K-STRETCH[®]
 - METODOA: HIPOPRESIBOA[®]
 - BERREZIKETA
 POSTURAL GLOBALA (RPG)
 - PILATES
 - PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



I. BERTSO PAPER LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

irunabar Irungo Bertsoaren Bilguneak antolatu du aurten, estreinakoz, Irungo Eskolarteko I. Bertso Paper Lehiaketa. Baita arrakastaz antolatu ere, guztira 89 bertso pare jaso baituzte, eta epaileek ez dute lan samurra izan sarituak hautatzerakoan. Alaia Martin eta Abel Zabala aritu dira epaile lanetan; Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen izenean lehena, eta Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunearenean bigarrena.

Sariak maiatzaren 27an banatu ziren Irungo Amaia KZn, Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eta Irungo Udalak ikasturte amaieran antolatu ohi duten jaialdian. Jaialdi hau Bertsozale Elkartearen proiektua hezkuntza arautuan txertatzen duten ikastetxeetako ikasleei eta gurasoei zuzendua izaten da. Parte-hartzaile sarituek euren bertsoak kantatzeko aukera izan zuten.

Halaber, Irungo Bertso Eskolen III. Eguna antolatuko du Irunabarrek. Ekainaren 14an, Meaka auzoko Ola sagardotegian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Bertan, Irungo bertso eskoletako kideekin, lagunekin eta familiekin arratsalde pasa polita egiteko aukera izango da, bertsoa protagonista nagusi delarik.



Maiatzaren 27an Amaia KZn egin zen ekitaldiko zenbait irudi.



SARITUAK

3. MAILAN (LH): Xabi Etxebeste 3. F – Txingudi Ikastola

4. MAILAN (LH): Ane Zubieta 4. A – Txingudi Ikastola

5. MAILAN (LH): Leire Arrieta 5. D – Txingudi Ikastola

6. MAILAN (LH): Sara Padilla, Marina Sanchez, Leire Larrarte, Guillermo Gonzalez (El Pilar 6. D)

DBH 1: Igauri Lopetegi – Txingudi Ikastola

Aipamen bereziak*:

-Alazne Bermudez (Dunboa 5. B)

-Nerea, Natalia, Maialen, Alba, Serah (Belaskoenea 5+6)

-Nerea I, Eneritz M, Battogtokh, Andoni S (Elatzeta 6)

-Aimar Arana (Eguzkitza)

-Mireia, Aiala (Dunboa 5. A)

* Aipamen berezia izan duten bertsoen egileek ere saria jasoko dute.



DENAK EZ DU BALIO MARKETIN ETA PUBLIZITATEAN



Aspaldi honetan ikusten ari naizen publizitate eta marketing kanpaina batzuek harri eta zur utzi naute. Komunikazioaren munduan autoerregulazioa egon bazegoela uste nuen, salbuespenak salbuespen. Bada, ez, "denak balio du" delakoa jaun eta jabe dabil publizitatean.

Mediaset (Telecinco eta Cuatro) enpresak berrikitan galdu ditu bi TDT kate, Zapateroren gobernuaren garaian emakida ilegala esleitu zitzaion eta. A3Mediak ere (Antena 3 eta La Sexta) hiru galdu ditu, eta itxiera iragartzeko publizitate kanpaina gobernuari legea ez betetzea leporatu zion, halako bidegabekeria ahalbidetzen zuenez gero.

Harira ez datorren arren, gogora dezagun ez zutela inolako spotik egin ospatzeko, nahiz eta kate horiek zuzenean eta legeak agindutako emakida-lehiaketarik gabe irabazi zituzten. Beharbada informazio-saioen bitartez eskertu zuten, ez hain nabarmen baina eraginkor hala ere. Mediaseten kasuan, kanpainako spotak, marrazki bizidun xalo eta errealdien bitartez, familia zoriontsu bat aurkezten zigun, non kideek taldeko TDT kate bana irudikatzen zuten, eta oinezkoen bidea zeharkatzen ari zirela, gobernuaren ibilgailu ilun batek lazki harrapatzen zituen, polizia-argiak zeramatzen eskolta eta guzti. Talkaren talkaz, familiako bi kidek bizia galdu zuten; alegia, desagertzeaz zeuden kateek.

Ikaragarriko gustu txarreko deritzot marrazki bizidunak bezalako gaztetxoentzako kode bat erabiltzeari, areago argudioaren indarkeriaz eta bide-segurtasunaren metaforaren arinkeriez nahasirik. Trafiko istripuen biktima izandako familia ugarietzat merezi ez duten errespetu falta delakoan nago. TDT bi sasikate eta istripuetan hildakoak alderatzea? Nekez egin daiteke zakarragorik. Emakume baten aurkako bortxaketa eta talde mediatikoak jaso omen duen gehiegikeria alderatzea bezalako zerbait. Hamaika ikusteko jaiak omen gara.

Ikuslearen arreta erakartzea, harritzea, jota uztea da bilatzen dutena, iragartzen duenaren alde egin dezan. Izan ere, horretan datza telebistan pairatzen ari garen publizitate erasokorra; baina profesionalok gutxieneko etika, saihestu ezinezko ardura bat eskatu behar dugu.

Pablo Moratinos

Marketing online-aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Herri Bazkaria

adin oroarentzat

Herri Bazkaria, jada sanmartzialetako ekintza erraldoi bilakatu dena, ekainaren 21ean egingo da. Goizean koadrilentzako olinpiadak antolatu ditu Betti Gotti Elkarteak, eta, ondoren, 1.600 lagun inguru bilduko dituen otordua Ficoban.

Berrikuntzen artean, adin aniztasuna bilatuko dela, soilik gazteenentzako jaieguna izatera irits ez dadin. Sarrerak erosteko azken egunak, ekainaren 6an eta 7an.

Koadrilen Egunka eta Herri Bazkariak arrakasta puska erdietsi du aurreko 5 edizioetan, eta aurtengoan ere Ficoba txiki geratuko da zalantza izpirik gabe. Egun borobila izan ohi bada ere, Betti Gottikoek hobetu nahi izan dute eta, hartara, berrikuntza sorta aurkeztu dituzte. Horietako nagusia, adin aniztasuna bilatuko dela. "Joera bat ikusi dugu bazkarian: urtetik urtera 18 urteko gazte gehiago hurbiltzen direla eta helduagoak gutxiago etortzen direla. Nahi ez duguna da beste herri batzuetan gertatu dena: gaztetxoek soilik parte hartzea", azaldu zuen Joxeja Zabalok. Hori ekiditeko, salmentaren lehenengo asteburuan sarrerak bi taldetan banatu dituzte: 24 urtetik beherakoentzat eta adin horretatik gorakoentzat. Bigarren asteburuan adin filtrorik gabe salduko dira. Antolatzaileek adin guztietako jendea parte hartzera ani-

matu zuten.

Herri Bazkariaren Abestia

Aurten lehenbizikoz, Betti Gottik Herri Bazkariaren Abestia Lehiaketa prestatu du. Mikel Goicoechea irundarra da aurkeztu den bakarra; beraz, *Hauxe da herri bazkaria* izeneko kantua 2014ko jaietan eta hurrengoetan entzun ahal izango da.

Herri bozketa kamiseta lehiaketan

Aurrekoetan ez bezala, bazkarira jotzen direnek kamiseta onena aukeratu dute. Horretarako, sarrera zenbakidun bakoitzak kode bat edukiko du. Ekainaren 16tik 19ra jasotako kamiseten artean zortzi hoberenak webgune batean jarriko dira, eta bozkatu ahal izango da.

Itzulera elektropatxarengatik

Ficobara joan-etorria kalejiran egiten dute bazkaltiarrek. Iñaki Goikoetxea Betti Gottiko kidearen esanetan,



Ezkerretik hasita, Betti Gottiko Iñaki Goikoetxea, Miren Polo, Belen Sierra Kulturako udal ordezkaria eta elkarteko Joxeja Zabalok. Eskuineko argazkian, iazko irabazleak.

"Aurten ekitaldi hau indartzeko eta Ficobako giroa herrira ekartzeko, Hondarribiko Elektropatxaranga kalejirako musikaz arduratuko da eta, seguruenik, kamioi batean sartuko dugu bueltako ibilbidea egiteko"

Lehiaketak eta sariak

Kamiseta Lehiaketaren irabazleak Port Aventurarako bidaiak eskuratuko du; bigarrenak, asteburu pasa landa-etxe batean, eta hirugarrenak, afaria. Sari bakoitza zortzina lagunentzat izango da.

Urtero legez, olinpiadak jokatu dira. Gero eta koadrila gehiagok esku hartzen dute, iaz 20ra iritsi zirela. Irabazleek Port Aventurarako bidaiak bat jasoko dute sari gisa.

Antolatzaileek gogora ekarri zuten 16:30ean Ficobako ateak irekiko direla, musika-festaz gozatu nahi duen orok sartzea izan dezan.



Sarrerak eta egitaraua

SARREREN SALMENTA

Ekainaren 6an, 18:30-20:30
Ekainaren 7an, 11:30-13:00
17 €. EKT Elkartearen (Larretxipi kalea, 12). 18 urtetik beherakoei ez zaie sarrerarik salduko.

EGITARAUA

9:30 Gosaria
10:00 Koadrilen olinpidak (Urdanibia plazan ezin bada, inguruetan antolatuko da).
12:00 Txaranga poteoa batukadarekin (Urdanibia eta San Juanen)
13:30 Kalejira zentrotik Ficobara.
16:30 Musika zuzenean eta DJa
20:45 Txarangaren itzulera

GB EVENTOS
Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

Jai herrikolak
Ezkontzak
Urteurrenak

Enpresa ekitaldiak
Erakunde ekitaldiak
Gal baten inguruko ekitaldiak

www.gbeventos.es

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA.COM

Rosa Sánchez
Abokatua

Tel 943 632 740

Telekopia: 943 639 793

rosasanchez@despachoprofesional.net



Eskarne Ruiz de Arbulo
Zuzenbidean lizentziatua
Epaitegietako prokuradorea

Tel 943 635 073

Telekopia: 943 622 314

eskarne@eskarneprocuradora.com



Ikastaroak

- **SOROSPEN ETA LEHEN LANGUNTZARAKO IKASTAROA IRUNEN.** Antolatzailea: Gurutze Gorria.

Data: uztailaren 7tik 18ra.

Ordutegia: Goizez.

Iraupena: 40 ordu

Prezioa: 110 €

Interesatuak, deitu: 943

62.11 62 edo 647 371 525

www.cruzrojoagipuzkoa.com

- **IRUN HIRIA ARGAZKI LEHIAKETA HERRIKOIA.**

Gaiak: 1. Irun. 2. Librea
Modalitatea: Zuri-beltzean edo koloretan; edozein teknika onartuko da.

Aurkezteko epea:

Ekainak 16.

Antolatzailea: Irungo Argazki Elkarte.



Lana

- **UDALEKUETAN BEGIRALE ARITZEKO ESKAINTZA.**

Gipuzkoako Foru Aldundia-



ren udako programetarako begiraleak honako enpresa hauek hautatuko dituzte:



Lehiaketak



Motxilarekin munduan

Motxilarekin bidaia bat egitekotan bazabiltza, ondorengo argibideak lagungarri gerta dakizkizuke.

[www.gazteaukera.eus-](http://www.gazteaukera.eus-kadi.net)

kadi.net

(Aisialdia eta kultura atala)



- Kabia elkarte

info@kabia.org

- Play&Say (frantesez):

info@playandsay.org

- Sorginmuino:

sorginmuino@gmail.com

- Hezkide:

hezkide@hezkide.org

- Heziby:

etxanizaritz@gmail.com

- **KAZETARIEN LAN POLTSA.**

Oarso Bidasoko Hitzak erredakzioan ordezkapenak egiteko lan poltza osatu nahi du. Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea.

- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

- Lanetarako prestasuna.

CVa nora bidali:

oarsobidasoa@hitza.info

Erreferentzia zehaztu behar da.

Epea: Ekainak 9.

Nordic walking

ZER DA?

Irunkiroleko programa bat da: makilekin ibiltzean datza.

Ariketa

egiteko era segurua, osasuntsua eta merkea da, edonork egiteko modukoa.

NOLA PARTE HARTU?

Irteera bakoitza kolektibo jakin bati begira egiten da. Eman ezazu izena:

info@imtraining.es

693.661.994. Doakoa da.



Ikasketa gelak ordutegia luzatu du

Azterketa garaia heldu delako, Ikust-Alaia Liburutegiak zabaldu egingo du ikasteko aretoaren ordutegia **ekainaren 28ra** arte.

Ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 08:30 - 20:00

- Larunbatetan: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 20:00

- Igandeetan: 09:00 - 13:00.



Sanmartzialetako kontzertuak

EKAINAK 23: LA PEGATINA. Hasierako taldea, **SKY BEATS.**

EKAINAK 27: GATIBU. Hasierako taldea, **LES FOUS**

EKAINAK 28: DOCTOR DESEO. Hasierako taldea, **ZORDAK.**

TOKIAK: San Juan plaza, Zabaltza plaza eta Ficoba

- **HILAREN 21EAN**, musika agendari hasiera emanez, tokiko banden eskutik soilik etorriko den kontzertua:

TEMBLORES eta **RAS MIGUEL & TAFARI**

MUSIKA HITZORDU GEHIAGO:

- **HILAREN 22AN**, **SKOLA MUSIKER** kontzertu bat emango du Ficoban Musikaren Nazioarteko Eguna



ospatzeko.

- **EKAINAREN 25EAN** erabakiko da Musikirun IV Marketa Lehiaketa.

- **HILAREN 28AN** San Juan plazan, **THE MUSIC SHOW** orkestrak joko du.

- **HILAREN 30EAN** hitzordu bikoitza: **REMEMBER** taldearen kontzertua Zabaltza plazan; eta amaitzeko

DISKO-FESTA FICOBAN, **"ABIBA-REN** eskutik.



zure enpresari internetetik zabalitzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

Ekainak 3
Hitzaldia
Amaia KZn



18:00etan, hitzaldi aretoan, Javier Urrea psikologoa: *Gura-soak gaur: heziketaren gaur egungo giltzarriak*. Sarrera: Doan.

Ekainak 5
Ahalduntze eskola
Ikusts-Alaia liburutegian

10:00etan, Emakumeentzako Ahalduntze Eskola: *Gure ha-rremanak eta galerak lantzen*.

Ekainak 6tik 8ra
Azoka Ficoban

Bioterra, produktu ekologiko, bioeraikuntza, energia berriz-tagarri eta kontsumo arduratsuen azoka. Sarrera: 3 €. Haurrak, musutruk.



Ekainak 7
Mintegia
Gordailun

San Adrian-Liarrate tuneleko brontze aroan apaindutako ontzi bat. 10:00-14:00. Aurre izen-ematearen bitartez, doako sarrera.

Ekainak 7
Kongresua
Ficoban

Naturopaten Euskal Herriko kongresua.

Ekainak 7

Kontzertua
Diasso Museoa

12:00etan, Musika Museoa programaren barruan, metal talde batek entzunaldia eskainiko du.

Ekainak 10
Zinema
Amaia KZ

19.30ean, hitzaldi aretoan, *Augustine* film frantziarra. Zuzendaria: Alice Winocour. Aktoreak: Vincent Lindon, Stéphan Wojtowicz, Soko, Chiara Mastroianni. Doako sarrera.

Ekainak 13
Poesia errezitaldia
Ikust-Alaia Liburutegian



19.30ean. Antonio Machadoren heriotzaren 75. urteurrena dela eta. Doako sarrera.

Ekainak 3-15
Pintura Erakusketa
Laboral Kutxan

Udal Pintura Akademiako Ikasleen erakusketa.

Ekainak 13-14-15
Bidaia



Oiasso Museoa bidaia antolatatu du Frantziako Tolosara, hiri horren iragan erromatarra ezagutzeko. Informazioa eta izen-emateak:

www.oiasso.com
edo 943.63.93.53.

Irungo Bertso Eskolen III. Eguna

Noiz: Ekainak 14
Ordua: 17:00etan
Lekua: OLA sagardotegian

Bertan, Irungo bertso eskoletako kide, lagun eta familiarekin arratsalde pasa polita egiteko aukera izango duzue, bertsoa protagonista nagusi izan ohi den ospakizunean.

Bai sariak eta bai aipamen bereziak jaso dituzten parte hartzaileek izango dute beren bertsoak kantatzeko aukera.



EKAR TELEINMOBILIARIA

943 628 333

info@ekarinmobiliaria.com



IRUN Erref: 04202

180 m², 4 logela (2 bikoitz, 2 bakun), 2 bainugela, komuna, egongela, sukaldea, jangela, terraza, balkoia, trastelekua, gasezko berogailua, tximinia txikia; kanpora, E/M orientazioa, eguzkitsua. Altzariduna. Garaje itxia 2 autorentzat. Kirol instalazioak.

Prezioa: 1.000 €



IRUN Erref: 04205

Etxebizitza erabat zaharberria. Azalera: 62 m². 2 logela bikoitz, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua; kanpora, ekialdea / mendebaldea orientazioa, eguzkitsua.

Prezioa: 135.000 €
(22.462.110 pta)



IRUN Erref: 04187

Azalera: 60 m². 2 logela (bikoitz 1, bakun 1), bainugela 1, sukaldea, egongela, balkoia, igogailua, gasezko berogailua; kanpora, hegoaldera, eguzki-tua.

Prezioa: 156.000 €
(25.956.216 pta)



IRUN Erref: 04186

Azalera: 52 m². 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela; kanpora. Prezioa negoziara daiteke.

Prezioa: 80.000 €
(13.310.880 pta)



HENDAIA Erref: 03323

Hondartzan, lehen ilaran. Azalera: 30 m², logela 1, bainugela, komuna, egongela sukalde amerikarra, terraza, igogailua, berogailu elektrikoa; kanpora, hegoaldera, eguzkitsua.

Aukeran: aparkaleku estalia.

Prezioa: 140.000 €
(23.294.040 pta)



HENDAIA Erref: 04063

Erabat zaharberria. 45 m², logela bikoitz bat (bi egiteko aukera), bainugela, egongela, sukaldea, ganbara, berogailu elektrikoa; kanpora, mendebaldera, eguzkitsua, bistak.

Prezioa: 159.000 €
(26.455.374 pta)



HENDAIA Erref: 03511

Hendaia gainetan, berriki eraikitako inguru lasaian. 65 m². Bi logela bikoitz, bainugela, komuna, 19 m²ko egongela, sukaldea, 10 m²ko terraza, bistak, 3 armairudun trastelekua, berogailua; oso eguzkitsua. Aparkalekua.

Prezioa: 190.000,00 €
(31.613.340 pta)



IRUN Erref: 03878

106 m² bi solairutan, 5 logela (2 bikoitz, 3 bakun), egongela, sukalde lorategira irteeraduna, bainugela, gasoleozko berogailua; eguzkitsua. Aparkalekua kanpoan 3 autorentzat, arrapaladuna. Sotoa eta txokoa.

Prezioa: 350.000 €
(58.235.100 pta)



IRUN Erref: 03898

80 m², 3 logela (2 bikoitz, bakun 1), bainugela, komuna, egongela eta sukalde handia, balkoia, igogailua, armairuak; hegoaldera, eguzkitsua. Zerbitzu guztietatik eta Pinudiko parketik hurbil. Minusbaliatuentzako sarbidea.

Prezioa: 190.000 €
(31.613.640 pta)

Irún Factory: erakusketa + tailerrak

Zer: Erakusketa

Non: Irún Factoryn (Loidi Bizkarrondo plaza, 8).

Noiz: Ekainaren 13ra arte

Erakusketa kolektiboa, arkitektura iraunkorraren, paisaiaren eta hiri esku-hartzearen ingurukoa.

Haurrentzako tailerrak

Ekainaren 6an, 17:30etik 19:30era. Gaia: Sentsazio makinak. 25 euro

Ekainaren 13an, 17:30etik 19:30era. Gaia: Lorategia.

Izen-emateak: irunfactory@irun.org





AURREMATRIKULA:
maiatzak 27tik, ekainak 6ra
biak barne

MATRIKULA:
uztailak 9tik, 16ra
biak barne

ATE IREKIAK

Erdi Maila: **maiatzak, 19**
Goi Maila: **maiatzak, 20**
Ordua: 18:30



IDASOA



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
Fax. 943 615 380

secretaria@fpbidasoa.org

www.fpbidasoa.org

2014 / 2015 IKASTURTEA ZIKLO ESKAINTZA EGUNEZ ETA GAUEZ*

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza

Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa

GOI MAILA

***FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA**

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

**SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA
AUTOMATIZATUAK**

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

**TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-
SISTEMAK**

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

***INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK**

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK